

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2020ko otsailaren 24tik 28rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROPA: ALEMANIAKO BPGd-a



Datuaren analisia


alemaniako BPGd-a ez aurrera ez atzera geratu zen 2019ko laugarren hiruhilekoan (% 0). Izan ere, ekipo-ondasunen inbertsioak % 2ko beherakada izan zuten, eta kontsumoaren hazkundera nulua izan zen. Ekonomiak % 0,6ko urteko hazkunderarekin agurtu zuen 2019a (zazpi urtetan izandako ritmorik apalenarekin), atzeraldi teknikoa ozta-ozta saihestu ondoren, urtearen erdialdean gerra mertzialak eta Brexitak eragindako ziurgabetasunak esportazioak eta Alemaniako industria beretsua gogor astindu zituenean.

Adierazlearen azalpena

estatistiken Bulego Federalak (Destatis) argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialdearen ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Alemaniak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denborarekin jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztikoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROPA: IFO ENPRESEN KONFIANTZA



Datuaren analisia


Enpresen konfiantzaren IFO indizea 96,1 puntutan kokatu zen otsailean, urtarrileko 96 puntuan baino beherago. Merkatuak, aldiz, indizea 95,3 punturaino jaustea espero zuten. Erreferentziaren osakerak irreikuspenen hobekuntza bat erakutsi zuen, 92,9tik 93,4ra pasatu baitziren (aurreikuspena: 92,1). Inongo egoerak, berriz, okerrera egin zuen pixka bat, 99,2tik 98,9ra, nahiz eta merkatuak aho batez irreikusitakoa gainditu (aurreikuspena: 98,6).

Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako duera ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 100 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur ungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua du Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: BPGd



Datuaren analisia


Barne-produktu gordinak % 2,1eko urteko hazkundera izan zuen urria eta Abendua bitartean, irreko hiru hilabeteetako kopuru bera. Aipatu hazkunderaren arrazoia kontsumo pertsonalaren, inbertsio federal, estatuko eta tokikoaren gastuaren, esportazioen eta bizilekuen inbertsio finkoaren arpen positiboa izan zen, inbentarioen eta bizilekuarekin loturarik ez duen inbertsio finkoaren arpen negatiboak orekatu zituen.

Adierazlearen azalpena

Barne-produktu gordina (BPGd) Análisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialdearen ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta hori bora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: CONFERENCE BOARD KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA



Datuaren analisia


Conference Board-ek neurtzen duen **kontsumitzailearen konfiantza** 131,6tik 130,7raino jaitsi zen sailean, eta, beraz, analistek aho batez espero zutena (132,2) baino kaxkarragoa izan zen naitza. Datuaren osaerari begiratuta, oraingo egoeraren balorazioak nabarmen egin zuen behera, 15,3tik 165,1era, hain zuzen ere. Aurreikuspenek, aldiz, hobera egin zuten, 102,5etik 107,8ra, eta 10 puntuko neutraltasun-mailatik gorako posizioetan mantendu zen hirugarren hilabetez jarraian.

Adierazlearen azalpena

Estatu Batuetako kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, hau da, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. The Conference Boardek hilean behin argitaratzen du, 1967tik. Estatu Batuetako 5.000 familiei egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da. Inkesta horretan, enpleguaren eta negozioaren (norbere konturako langileen kasuan) buruzko egungo egoerari eta datozen sei hilabeteetarako aurreikuspeni buruz galdetzen zaie, baita inkesta berraren diru-sarrera guztiei buruz ere. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa adierazten du, baina baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdura eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

APONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Urreko hilarekin alderatuta, **Japoniako industria-ekoizpena** % 0,8 hazi zen urtarrilean. Hilerazleak, aldiz, % 2,5 egin zuen atzera 2019ko urtarrileko datuarekin alderatuta.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den presa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia ten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
03/02	Japonia	Japoniako Jibun Bank fabrikazioaren PMIa	--
03/02	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	46.0
03/02	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	48.9
03/02	Italia	Markit Italy Manufacturing PMI	49.0
03/02	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	49.7
03/02	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	47.8
03/02	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	49.1
03/02	Erresuma Batua	Markit, RU SAre PMI fabrikazioa	51.9
03/02	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	50.5
03/03	Eurogunea	Hileko KPIa	% 0.2
03/03	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 7.4
03/04	Japonia	Japoniako Jibun Bank Zerbitzuen PMIa	--
03/04	Japonia	Japoniako Jibun Bank Composite PMIa	--
03/04	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
03/04	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	48.0
03/04	Alemania	Hileko xehekako salmentak	% 1.0
03/04	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	51.6
03/04	Espainia	Markit PMI zerbitzuak Espainia	52.5
03/04	Italia	Markit Italy Services PMI	51.2
03/04	Italia	Markit Italy Composite PMI	50.1
03/04	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	52.6
03/04	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	51.9
03/04	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	53.3
03/04	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	51.1
03/04	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	52.8
03/04	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	51.6
03/04	Italia	Urte arteko WDA PMIa	% 0.0
03/04	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI	53.2
03/04	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	53.3
03/04	Eurogunea	Hileko xehekako salmentak	% 0.6
03/04	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	170k
03/04	Estatu Batuak	Ez-fabrikazioaren ISM indizea	55.0
03/04	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
03/05	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	216k
03/05	Estatu Batuak	Fabrika-eskariak	-% 0.2
03/05	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	-% 0.2
03/06	Alemania	MoM fabriken aginduak	% 1.2
03/06	Frantzia	Balantza komertziala	-4805m
03/06	Espainia	Hileko industria-ekoizpena	% 0.5
03/06	Italia	Hileko xehekako salmentak	--
03/06	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$47.0b
03/06	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 3.6
03/06	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	--
03/07	Txina	Balantza komertziala	\$29.30b

ASTE HONETAN MERKATUETAN

JRTSA:

itsiera nabarmenen astea munduko burtsa nagusietan. inatik kanpo detektatutako kasu berrien aurrean, onabirusaren inguruko kezka izan zen berriro inbertitzaileen reta-gune nagusia. Birusa Txinatik kanpo azkar hedatu denez a Europara ere jauzi egin duenez, mundu-mailako pandemia iten beldurra biziagotu egin zen, eta, ondorioz, ekonomia obalean izan dezakeen eraginaren gainekoa ere. onabirusagatik hazkunde aurreikuspenak jaitsi izanak banku ntralek beren diru-pizgarriak berriz martxan jartzeko aukerari iruzko eztabaida piztu zuen. Interes-tasen murrizketa higarri bat egiteko aukerak ere ondorioak izan zituen finantza ktorean; astean portaera okerrena izan zuen sektoreetako bat an zen. Txinako birusaren ondorioak arintzeko helburuarekin, ong Kongeko Finantza ministroak zerga-arloko neurri-sorta bat igarri zuen ekonomia bultzatzeko. Halaber, badirudi emaniako Finantza ministroa ere prest dagoela zorraren baiaren araua aldi batez bertan behera uzteko, zor handienak uzten eskualdeei lagunduko dien pizgarri bat emate aldera. astetik, Europak baieztatu zuen Erresuma Batuarekin exitaren ondorengo harremanaren nondik norakoak hazteko negoziazioak astelehenean hasiko zirela. Argi utzi en, gainera, oso prozesu gogorra izan daitekeela, eta porrot jin dezakeela herrialde britainiarrak Irlandako mugarekin uen konpromisoak betetzen ez baditu.

ERRENTA FINKOIA:

onabirusaren ondorioen beldurragatik, merkatuetan inegona handitzeak jaitziera handiak eragin zituen Europako ire zorraren eta Ipar Amerikako zorraren rentagarritasunetan. Horiek horrela, hamar urterako emaniako tasak 18 op egin zituen atzera, - % 0,61eraino, eta ie bereko erreferentzia amerikarrak 32 op, -% 1,15eraino. onu espainiarrari dagokionez, hamar urterako tasa 6 op igo n, % 0,28raino. Espainiako arrisku-prima nabarmen igo zen, i punturaino. Kredituak, bestalde, diferentzialak handitu zituen.

BISAK / LEHENGAIK:

roak % 1,66ko balioa irabazi zuen dolarraren aurrean, Fed-ek sak murrizteko aukeraren aurrean eta Alemaniak ekonomia ltzatzeko zerga-pizgarri fiskalak aplikatzeko itxaropenaren rrean. Yenak, babes-aktiboaren paperean, balioa irabazi en. Liberak, aldiz, ahultzera egin zuen, Europar Batasunarekin goziazioa hausteko aukeraren aurrean. Lehengaietan, trolioaren prezioak % 3,55 egin zuen behera. Libiaren oizpen txikiagoak eta martxoaren 5 eta 6ko LPEE+-en bileran rrizketa handitzeko aukerak ez zuten koronabirusaren krisiak nduko petrolio eskaria are gehiago geldiaraziko zuen beldurra largabetzea lortu. Urrearen balioak % 3,51 egin zuen atzera, 85,69 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	%Aldaketa Astean	Ald. % 2020
MSCI WORLD (Local)	1.646,18	-11,12	-8,53
IBEX 35	8.723,20	-11,76	-8,65
DJ EURO STOXX 50	3.329,49	-12,39	-11,10
DJ STOXX 50	3.060,01	-12,33	-10,08
FTSE	6.580,61	-11,12	-12,75
S&P 500	2.954,22	-11,49	-8,56
Dow Jones	25.409,36	-12,36	-10,96
NASDAQ	8.567,37	-10,54	-4,52
NIKKEI 225	21.142,96	-9,59	-10,63
MSCI GORAKORRAK (Tokioa)	57.099,76	-6,48	-7,11
MEXBOL	41.324,31	-7,76	-5,09
BOVESPA	104.171,60	-8,37	-9,92
SHANGHAI	3.018,36	-5,24	-5,56
Errusia Rts Mosku	1.299,69	-14,76	-16,09

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2020
ALEMANIA 2 URTE	-0,77	-0,13	-0,17
ESPAINIA 2 URTE	-0,43	0,03	-0,04
AEB 2 URTE	0,91	-0,44	-0,66
ALEMANIA 10 URTE	-0,61	-0,18	-0,42
ESPAINIA 10 URTE	0,28	0,06	-0,19
AEB 10 URTE	1,15	-0,32	-0,77
ALEMANIA 30 URTE	-0,15	-0,20	-0,50
ESPAINIA 30 URTE	1,05	0,04	-0,27
AEB 30 URTE	1,68	-0,24	-0,71
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	64,25	21,37	20,20
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	298,56	79,82	92,19

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2020
Dolarra / Euroa	1,10	1,66	-1,67
Yena / Euroa	119,11	-1,56	-2,12
Libera / Euroa	0,86	2,53	1,41

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald
Petrolio (Brendt)	50,02	-13,55	-24,69
Urrea	1.585,69	-3,51	4,51

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.